

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}


Asteazkena, 2011ko azaroaren 16a. VIII. urtea. 2.308. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Amaia Ruiz Aktorea

«Pila bat ikasten dut Ramon Agirreren ondoan; segurtasuna ematen dit»

‘Goenkale’ telesailan hasi da denboraldi honetan Amaia Ruiz tolosarra, betiko ametsa egi bihurtuz; Malen da bere pertsonaia, «oso aberaskumea» den gaztea

Administrari lana utzi eta interpretazioa ikastera joan zen Madrilerara; urte bete egin zuen bertan, Euskal Telebistako saio ospetsuan lan egiteko proposamena jaso arte ◦6



Ruiz atzo, Berdura plazan, atzean Goenkaleko sekuentzia bat grabatzen ari ziren bitartean. I. GARCIA

Xexili egun jendetsua ospatuko du Loatzo musika eskolak, larunbatean

Seiehun bat ikasle bilduko dira Alegian; jaiaren aurkezpena 11:30ean izango bada ere, lehenago ere izango dira ekitaldiak, piano gunea, kasu ◦5



Alegian egin zuten jaiaren aurkezpena, atzo. M. UGARTEMENDIA

Espainiako armadaren maniobrak salatu ditu Leitzako Udalak

Leitzalarren egon ziren militarrek; armadako presentzia «izugarria» izan dela dio alkateak, eta honek sortutako «arriskua» salatu du ◦7

Tolosako Udala euskararen erabilera sustatzeko ari da lanean

Bihar, 18:30etik aurrera, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordearen bilera izango da; helburua euskararen normalizazioa lortzea da ◦2

Bihar hasiko dituzte Topaguneko urteurren ekitaldiak

Tolosako kultur etxean dagoen gazte guneak zazpi urte bete ditu; bihar mahai futbol eta ping-pong txapelketak izango dira, 17:30etik aurrera ◦3





Gipuzkoa osoko jokalariek parte hartu zuten. HITZA

Carlos Sanchez azkoitiarra suertatu zen garaile xakean

Pasa den igandean, kadete mailako Gipuzkoako Xake Txapelketa jokatu zuten Tolosan

I. Urkizu

Azkoitiako Anaitasuna Kakute klubeko Carlos Sanchez suertatu zen irabazle, partida bat bera ere galdu gabe, pasa den igandean, Tolosan ospatu zuten kadete mailako Gipuzkoako Xake Txapelketan.

Urriko eta azaroko igandeetan jokatu dute txapelketa, Tolosako Xake Elkartean, eta Gipuzkoa osoko jokalariek aritu dira. Aipatu bezala, Carlos Sanchezek txapelketa lortu zuen pasa den azaroaren 13an, eta bigarren postua, berriaz, iazko txapelketarako eskuratu zuen; Donostiako Gros klubeko

Christian Sanchezek, hain zuzen. Hirugarren saria Hondarribiako Marlaska klubeko Daniel Garmendiarentzat izan zen.

Jokalariek tolosarrei dagokienez, Daniel Intxaurrek lortu zuen posturik onena, zortzigarren sailkatuta.

Igandean Urdiña Txiki elkartean Igande honetan, hilaren 20an, Tolosako Urdiña Txiki elkartean Xake Txapelketa jokatu dute.

Txapelketaren hamargarren urteurrena izango da aurtengoa, eta antolatzaileek bereziki dei egin nahi diete eskualdeko xake zaleei; giro ona sortzea espero dute.

Xake azkar erara jokatu dute, bost minutuko partidekin. Jokatu nahi duenak Urdiña Txiki elkartean bertan eman beharko du izena, txapelketa hasi baino hamabost minutu lehenago. Txapelketa, 10:00etan hasiko da.



Irudian, txapelketako lehen hiru sailkatuak. HITZA

Udalak euskararen erabateko normalizaziora iritsi nahi du

Bihar arratsaldean Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordearen bilera izango da batzar aretoan

Itzea Urkizu

Euskara gizarte harremanetako ohiko hizkuntza bilakatzea da Tolosako Udalaren helburua. Bide honetan, eta udalaren esanetan, «euskararen normalizazioa helburu bat du: erabilera». Helburu horretara iristeko ibili beharreko bideez ariko dira bihar, udaletxe-ko batzar aretoan, Hizkuntza politika eta Hezkuntza batzordeak, 18:30erako deitu duen bileran.

Euskara herriko esparru guztietan normalizatzeko gain, «udalaren jardun-esparru osoari dagokion zeharlerroa» dela uste du Hizkuntza politika eta Hezkuntza batzordeak: «Udal agentariak eredu izan behar dute euskara erabiltzeko kontuan».

Horrez gain, ordea, hizkuntzaren normalizazioa «gizarte osoak bideratzen duen aldaketa soziokulturala» dela azaldu dute; Tolosako euskalgintzak eragin eta eskatu egin behar duela diote, eta hizkuntza normalizazio ekimen askoren protagonista izango dela. Honenbestez, hizkuntzaren normalizazio prozesuan hiru zutabe nagusi aipatu ditu udalak: politikariena, euskaltzaleena eta eragileena.

Esparruz esparruko lana Hizkuntza politika eta Hezkuntza batzordeak bihar arratsalde-

ko bileran azalduko duen moduan, euskararen normalizaziora esparruz esparru, hainbat ekimenen bidez heltzea da helburua.

Udalaren beraren kasuan, esaterako, Tolosako Udalak badu, lehendik ere, euskara normalizatzeko bere plana: «Datorren urtean amaituko da eta hurrengo bost urteetarako berria idatzi beharko dugu 2012an». Bide beretik, udalak parte hartzen duen erakunde autonomoetan ere erabilera plangintza martxan jartzeari garrantzia eman diote: Iurreamendi, Tolosa Lantzen, Tolosa Gasa, Tolaragi, Errentengibel, eta abar.

Euskararen erabilera da Tolosako Udalaren helbururik behinena, datozen urteetarako

Erabilera esparruak bereizi dituzte, hizkuntza normalizazioa lortzeko

Udalaren esparruan, bestelako aurreikuspenak ere azalduko dituzte biharko bileran: indarrean dagoen erabilera plana koherentziaz aurrera eramatea, hizkuntza eskubideen aldeko kanpainak abian jartzea, UEMAko kide egitea edo euskararen erabilera arautuko duen araudia sortu eta martxan jartzea, besteak beste.

Haur eta gazteen esparrua ere, udalaren jomugetako bat da euskararen normalizazioaren bidean. Tolosan, haur eta gazte guztiek, aurki D ereduaren ikasiko dute, «B eredia desagertzeko zo-

rian» baitago. Hala ere, udalaren erronka nagusia haur eta gazte-
txoen artean euskararen erabilera eta euskarazko aisialdi eta kultura eskaintza egokiak lortzea da: «Eskola giroko erabileraz harata, eskolaz kanpoko jardueretan erabilera sustatzea izango da lan ildo nagusietako bat».

Erabilera esparru honetan, etorkinen seme-alabak ere hizpide izango dira Hizkuntza politika eta Hezkuntza batzordeko bileran. Izan ere, haur eta gazteko hauek euskaraz ikasiko dute, eta «epe laburrean euskara maila ona lortu beste erremediorik ez dute izango». Hau kontuan izanik, udalak neska-mutil etorkinen euskara indartzeko hainbat saio eskaintzea ere aurreikusi du.

Haur eta gazte txokoen, ordea, nekez izango dute euskararekiko jarrera egokirik, gurasoek ez baldin badute. Honen harira, beraz, euskarazko kultura eskaintza areagotu edo Tolosako paisaje linguistikoa nagusiki euskarazkoa bilakatu nahi du udalak, besteak beste.

Bestelako neurriak

Aipaturiko gizarte talde hauek gain, Tolosako Udalak bestelako ekimenak egiteko asmoa azaldu du. Hauetariko batzuk aurkeztu dituzte jada, hala nola, Cardiffekin sinaturiko Comenius Regio hitzarmena. Horrez gain, ordea, Euskararen Erregelamenduaren berrikustea, Hizkuntza politika eta Hezkuntza alorreko langileen prestakuntza eta euskararen erabileraren inguruko neurketak ere, plangintzaren barruan sartu dituzte.

Irudia



AMAIURKO MAITE ARISTEGI, TOLOSAN

Pasa den astelehenean, Amaiur koalizioaren ekitaldia izan zen Zerkausion. Rafa Larreinaz gain, Amaiurko Gipuzkoako zerrendaburua den Maite Aristegi igo ziren oholtzara, eta besteak beste,

Euskal Herriaren autodeterminazio eskubideaz eta datorren igandean bozka ematera joatearen garrantziaz aritu ziren. Aristegik bertso bat abestuz amaitu zuen bere diskurtsoa. I. URKIZU

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



Uda honetan Gazte Topagunekoak Txingudiko badiara joan ziren. HITZA

Gazte Topagunearen zazpigarren urteurrena ospatuko dute egunotan

Mahai futbol, ping-pong eta mus txapelketak egingo dituzte, eta karting zirkuitura joango dira

Imanol Garcia Tolosa

Datozen egunetan Gazte Topagunekoek urtemuga ospatuko dute, zazpigarrena, hain zuzen. Bertako koordinatzailea den Arantxa Agirrek azaldu duenez, «azaroaren 13an da eguna, eta aste honetan egingo ditugu ekimenak». Urtero, urtemugaren inguruan, hainbat txapelketa antolatuta ohi dituzte, eta aurtengorako ere hiru egongo dira aukeran: mahai futbol, ping-pong-a eta musa. Horrez gain, Tolosa eta Alegia bitartean dagoen karting zirkuitura joango dira. Igandean, azken egunean, merienda egingo dute.

Ekimenak bihar hasiko dira mahai futbol eta ping-pong txapelketekin. Ostiralean egingo dute karting zirkuitura joateko irteera. 17:00ak aldera aterako dira Gazte Topagunetik, eta bizikletarekin joango dira. Parte hartzaile bakoitzak zortzi euro ordaindu beharko ditu.

Hurrengo egunean mus txapelketa izango dute. Honetarako azken hilean musean jolasten aritu dira, «gutxiago zekitenak ikasten joateko», esan du Agirrek. Lehiaketetan parte hartzeko aurretik edo egunean bertan eman daiteke izena.

Zazpi urte hauetako balantzea «nahiko ona» dela esan du Agirrek. Hasieran asteburuetan ba-

karrik hasi ziren Topagunea zabaltzen. Orain lau urte inguru hasi ziren ostegunetan eta ostiraletan ere irekitzen. «Gazte tolosarren erantzuna oso positiboa da», gaineratu du Topaguneko koordinatzaileak. Ostegun eta ostiraletan 17:00etatik 20:00etara dago zabalik eta asteburuan 16:30etik 20:30era. 12 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta, kultur etxean dago kokatua bilgunea.

Gazteen proposamenak

Asteburuetan gazte gehiago joaten direla dio Agirrek: «Asteazkenean zehar gauza gehiago izaten dituzte». Urtemugako ekitaldiez gain, urtean zehar beste zenbaitetan ere antolatzen dituzte ekimen bereziak. Horietako bat azaroaren 25aren inguruan izaten da, hau

Sukaldaritzarekin zerikusia duten tailerrak gustura egiten dituzte gazteek

da, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako egunaren harira. Gabonetan eta udan ere astebeteko ekimenak bultzatzen dituzte.

Horrez gain, beste tailer, ikastaro eta ekimenak ere egiten dituzte Topagunearan. «Orain gutxi pizta tailerra egin dugu. Sukaldaritzarekin zerikusia dutenak gustura egiten dituzte», dio koordinatzaileak. «Zenbait eskulanek ere arrakasta dute, adibidez, diademak egitea, edo fimoarekin gauzak egitea». Perkusio ikastaroa ere egin izan dute. «Gazteek beraiek egiten dituzte proposa-

↓ Egitaraua

AZAROAK 17, BIHAR

■ 17:30. Mahai futbol eta ping-pong txapelketa.

AZAROAK 18, ETZI

■ 17:00. Karting-etan ibiltzera joango dira. Bakoitzak 8 euro ordaindu behar ditu.

AZAROAK 19, LARUNBATA

■ 17:30. Mus txapelketa.

AZAROAK 20, IGANDEA

■ 18:00ak inguru. Merienda.

menak eta guk ere egiten dizkiegu», esan du Agirrek.

Neskak eta mutilak antzeko kopuruan joaten dira Topagunera. «Neskak gehiago joaten dira asteburuetan astean zehar baino», esan du. Parte hartzeari buruz ere, neskak eta mutilak parekatuta daudela dio Agirrek.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldia, bi autorentzako garaieja, txokoa, jardina eta trastelekua. Interesatuak, deitu 678 267657 telefono zenbakira.

Biodibertsitatea landuko dute eskualdeko ikasleek

2011-2012 ikasturtean Eskola Agenda 21eko programa landuko dute eskualdeko 7.000 ikasle baino gehiagok

M.U.

2011-2012 ikasturtean Eskola Agenda 21eko hezkuntza programan, biodibertsitatea landuko dute 12 herriko 7.000 ikasle baino gehiagok.

Tolosaldeko biodibertsitatea zein handia eta aberatsa den erakutsi nahi diete programa honekin ikasle txiki zein gazteei. Beraiek izango baitira gerora altxor honen zaindaria.

Ikasturte honetan zehar bertako landare eta animaliak zein diren ikasiko dute, eta bertakoak ez diren bereizteko bereiztuko dituzte. Halaber, inbaditzaileak diren landare eta animalia hauek, hemengoek lekua kenduta, ekosistema nola desorekatzen den aztertu ahal izango dute.

Biodibertsitate hau kontserbatzeko arauak eta neurriak zein diren, zein babestutako lur eremuak, Parke Naturalak eta Natura 2000 sarea zer diren ere ikasiko dute. Baita baserriak zein me-

sede egiten dioten naturari, eta zergatik dioten gure paisaiaren diseinatzaile eta zaindaria direla. Eta azkenik, guztiek nola babes dezakegun denona den altxor hau, zientzialari, politikari edo teknikari izan gabe, baserriko produktua kontsumituz, bertakoak eta garaian garaikoak, ekologikoak... eta gure natura eta paisaia ezagutzuz.

Eskola Agenda 21 lantzen duten irakasleek jada parte hartu dute lehenengo prestakuntza saioan. Eta, Tolosako Ingurumen Zentroko arduradunak ere hasiak dira alkate berriekin harremanetan jartzen, aurtengo edizioa indarrez hasteko eta proiektuari bultzada bat emateko.

Ikasleak laster hasiko dira lanean prestatutako materialarekin. Horrez gain, bideetako eta basoetako datuak bilduko dituzte naturari diagnostiko bat egiteko eta naturak zer behar duen ulertzeko.

Programatik kanpo dauden herritarrek ere parte hartu ahal izango dute biodibertsitatearen inguruko hausnarketa egiten. Alde batetik, gurasoek eskolan inplikatu ahal izango dute, eta gainerakoek parte har dezakete herrietan antolatuko diren ekintzetan.


→ Laburrak

Beldur Barik-en parte hartzeko epea zabalik

TOLOSALDEA ▶ Hamabi urteko gorako Tolosaldeko herritarrek Beldur Barik lehiaketan parte hartu ahal izango dute. Lehiaketaren helburua neska-mutilak berdintasunaren gaiarekin sentsibilizatzea da. Banaka edo taldeka parte hartu ahal izango da. Eta, proposamenak hilaren 30a baino lehen bidali beharko dira berdintasuna@tolosakou-dala.net helbidera. Irabazleek saririk jasoko dituzte.

Gure Kaiolako bazkarirako txartelak salgai

TOLOSA ▶ Igandean egingo den Babarrun Lehiaketa Gastronomikoaren egunean, Gure Kaiola elkarteak bazkaria antolatu du; 14:30ean izango da Zerkausion. Txartelak elkartearen eskura daitezke, 19:00etatik 21:00etara. Edo baita 607 672 709 telefonora deituta ere.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Villabonako eta Asteasuko mendi taldeak prest euren asteetarako

Sagain mendi taldeak antolatu duen Mendi Astea gaur hasiko da, Alex Txikonen proiektioarekin

Asier Imaz

Asteasuko eta Villabonako mendi taldeek mendi asteak antolatu dituzte euren herrietan. Egitarauen barruan, hitzaldiak, proiektioak eta nola ez, mendi irteerak antolatu dituzte.

Asteasuko Sagain mendi taldeak antolatu duen egitaraua gaur jarriko da martxan, 20:00etan, Alex Txikonen hitzaldiarekin. Mendi Astea antolatzerako garaian, udalaren babesa eta herritarren laguntza jaso dute Sagainekoek.

Lau egun igaroko dituen Mendi Astea jai herrikoi batekin amaituko dute asteasuarekin. Horregatik, igandea egun berezia izango da: 09:00etan plazan elkartu eta 4 ordu inguruko mendi ibilaldi erraza egingo dute, edozeinentzat aproposa. 09:30ean, mendi bizi-

kletaz ibili nahi dutenek izango dute hitzordua plazan, 3 ordu inguruko mendi ibilaldia eginaz. Korrikalariak ere euren txokoa izango dute hilaren 20ko jaietan. Hauek 10:00etan elkartuko dira plazan, 2 ordu t'erdiko lagun arteko ibilaldia egiteko asmoz. Goiza mendian pasa ondoren, guztiak irteera puntuan elkartuko dira, hau da, herriko plazan. Bertan jaia hasiko da, txerri erre dastaketa, edana, musika eta jolasekin.

Villabonan, Argazki Rallya
Aizkardi mendi elkartek 28. Mendi Astea antolatu du Villabonan. Kasu honetan, hitzaldi eta mendi ibilaldiekin batera, IV. Argazki Rallya aipatu behar da: hilaren 21etik 24ra bitarte, lehiaketaren egongo dira ikusgai, eta sari banaketa ekitaldia hilaren 24ean, ostegunean, izango da.

Hurrengo astelehenean hasiko den egitaraua, hilaren 27an amaituko da bazkari batekin.

Aizkardiko kideek, Sagainekoek bezala, Mendi Astea egitaraua osatzerako garaian, udalaren laguntza izan dute.



Asteasun, azken urteetan bezala, adin guztietako herritarrentzat prestatu dute Mendi Astea ibilaldia. HITZA

↓ Egitarauak

ASTEASU

Gaur, azaroak 16. Alex Txikonen proiektio ikusgarria: *Makalu mendebaldeko pilarra*. Udaletxeko aretoan 20:00etan.

Etzi, azaroak 18. Aberto Zerainen proiektioa: *Kanchenjunga eta zortzimilakoak alpinar erara*. Udaletxeko aretoan 20:00etan.

Azaroak 19, larunbata.

■ Orientazio duatloi proba. Oinez eta txirrinduz, adin eta maila guztientzat aproposa. Kiroldegi aurrean 10:00etan.

■ Txirrindulari buelta familiarra Bizibidaiakoekin. Eguraldi ona eginez gero 16:00etan plazan. Edozeinentzat aproposa.

■ Proiektioa Bizibidekoen esku-

tik, 17:30ean udaletxeko aretoan.

Azaroak 20, igandea.

■ Mendi irteera oinez. 4 ordu inguruko ibilbide erraza edozeinentzat aproposa. 09:00etan plazan.

■ Mendi txirrindaz 3 ordu inguruko ibilbidea, 09:30ean plazan.

■ Menditik korrika 2 ordu eta erdi inguruko ibilbidea. 10:00etan plazan.

■ Ondoren, herri festa plaza inguruan: txerri erre dastaketa, musika, jolasak...

VILLABONA

Azaroak 21, astelehena. Oskar Porrassen eskutik, *Tibeteko al-*

txorra. Gurea zine aretoan, 20:00etan.

Azaroak 22, asteartea.

■ Eskolentzako emanaldia 15:00etan, *Chamonix-Saas Fee eskiz* Egoitz Bengoetxearen eskutik.

■ Migel Mari Elosegiren eskutik, *Yellowstone parke naturala*. Gurea zine aretoan, 20:00etan.

Azaroak 23, asteazkena. Chamonix Zermatt-Saas Fee eskiz, Egoitz eta Gotzonen eskutik.

Gurea zine aretoan, 20:00etan.

Azaroak 24, osteguna. Everestako biderik laburrena Alberto Zerainen eskutik. Gurea zine aretoan, 20:00etan.

Azaroak 27, igandea. Mendi ibilaldia eta bazkaria. Irteera, Olanderra kiroldegian 08:00etan.

→ Laburrak

Diru laguntzen zuriketarako txostena

AMASA-VILLABONA ▶ Udalaren eskutik diru laguntza jaso duten eragileek, 2011ko diru laguntzaren %10 jasotzeko, zuriketarako txostena lehenbait lehen bidali behar dute udalaretxera, euskara teknikariak Amasa-Villabonako Udalaren izenean azaldu duenez.

Asvinenean aire akrobazia ikastaroa antolatu du

ADUNA ▶ Asvinenea arte eszenikoaren laborategiak ikastaro berri bat antolatu du, aire akrobazia ikastaroa, hain zuzen ere. Bi orduko klaseak asteazkenetan izango dira, 17:00etatik 19:00etara. Ikastaro honetan, tela trapezioak, uzta jokoak eta abar landuko dituzte. Izena eman nahi dutenentzat edo informazio gehiagorako, bi telefono zenbaki jarri dituzte: 605 41 08 80 (Eneritz) edo 689 79 24 69 (Virginia).

Euskal jaietako bideoa eta diaporama, bihar

ANOETA ▶ Kirol eta Kultur Astearen barruan, bihar, Euskal jaietako bideo proiektioa egongo da. Emanaldia 19:00etan hasiko da, Mikelasagasti auditorioan. Ordu erdiko proiektioaren ondoren, Asier Izagirrek eta Aitor Munduategi diaporama eskainiko dute, *Himalaya inguruko ibilerak* izenekoa. Ostiralean, *Baginaren bakarriketak* antzezlanak ikusteko aukera egongo da 22:00etan, Mikelasagasti auditorioan.

Iñigo Guridi presoak gose greban 10 egun egingo ditu gaur

Toalla bat ziega barruan lehortzen jartzeagatik isolaturik daukate billabonatarra, Granadako espetxean

Guridi Lasa/Centro Penitenciario de Granada-Albolote/Ctra. Comarcal 220, Km. 6/18229-Albolote (Granada).

Iñigo Guridi Lasa isolamendu egoera aurkitzen da. Bere ziegan zegoela, toalla bat sikatzen jarri zuen ziega barruan. Espetxeko funtzionarioek hori debekatuta zegoela esan zioten, ezin zela arroparik zintzilikatu ziega barruan. Guridik hurrengo egunean lehortzeko toalla behar zuela erantzun zien. Ondoren, eta *Gara* egunkariaren esanetan, mehatxu eta irain artean Guridi zigor ziegara eraman zuten funtzionarioek. Billabonatarrek gose grebari ekin zion orduan, isolamenduan amaiera eskatzeko eta espetxeko zuzendariarekin hitz egiteko; horrelako egoerarik berriro gerta ez dadin.

Asier Imaz Amasa-Villabona

Iñigo Guridi Lasa euskal preso billabonatarra gose greban aurkitzen da. Azaroaren 7an hasi zen baraualdian, eta gaur 10 egun beteko ditu jakirik probatu gabe.

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Guridiri elkartasuna azaldu dio, eta hainbat ekimen martxan jarriko dituela iragarri du. Horrez gain, Villabonako presoari idazteko eskatu dute. Hona hemen, gutun azalean idatzi beharreko helbidea: Iñigo

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Heriotzari buruzko hitzaldia emango du Patxi Izagirrek

Hitzaldia bihar izango da, 18:00etan kultur etxean; umeekin heriotzaren aurrean nola jokatu azalduko du

M.U. Alegia

Iturri Zahar Guraso Elkarteak heriotzari buruzko hitzaldi bat antolatu du gai honekiko interesa duen ororentzat. Hitzaldia bihar, hilaren 17an, izango da, kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara. Hizlaria, berriz, Patxi Izagirre psikologo eta psikoterapeuta izango da.

«Nola agertu ume bati heriotza zer den? Nola jokatu umeekin?»

Gezurren bat esan umeak sufritu ez dezan? Umeari berari utzi galderak egiten eta garbi erantzuten eta gai honi erlazioz atutako zalantzak argitzen saiatuko da Izagirre. Gai hau asko landu du psikologoak, eta uste du «gure gizar-tean ez dela heriotzaz hitz egiten, tabua da». Hala ere, «gero eta gehiago etortzen dira psikologo-engan laguntza eske».

Hitzaldira joaten diren gurasoek, umeak ondoko gelan uzteko aukera izango dute; hauek DBH-ko ikasleek zainduko dituzte. Zerbitzu hau jaso nahi dutenek, guraso guztiei banatutako oharra bete eta eskolara bidali beharko dute.



Alegiako udaleko eta musika eskoletako ordezkariak prentsaurreko batean aurkeztu zuten jaiak. M. UGARTEMENDIA

Loatzo musika eskolako seiehun ikaslek parte hartuko dute Xexili egunean

III. Xexili eguna Alegian ospatuko da hilaren 19an, larunbatean; 09:30ean hasiko da festa, kalejirarekin

M. Ugartemendia

Loatzo musika eskolak Xexili eguna ospatuko du larunbatean, hilaren 19an, Alegian. Aurten hirugarrenez antolatuko dute egun osoko jaiak.

Goizean goizetik hasiko dira ekitaldiak, eta alegiarrei horren berri emango diete herrian zehar egingo duten kalejirarekin. Aurtengo berrikuntza pianogunea izango da. Bertan pianoko ikasleak txandaka ariko dira pianoa jotzen.

Dantza gunean, berriz, herritarrek, gurasoek eta ikasleek dantza egiteko aukera izango dute. Jaiaren aurkezpena, 11:30ean izango da. Bertan udal ordezkariak eta beste herrietako ordezkariak izango dira. Izan ere, jai hau

zortzi udalerrien artean antolatzen da: Aduna, Alegia, Altzo, Anoeta, Ibarra, Irura, Villabona eta Zizurkil. Urtero herri hauetako batean ospatzen da Xexili eguna. Ondoren, Kale behean sokazko talde batek lau abesti joko dituzte. Taldea zortzi urtetik gorako ikasleek osatuko dituzte. Eguerdian, Loatzo eta Txintxarri abesbatzak elkarlanean prestatu duten emanaldiaz gozatzeko au-

kerak izango dira. Emanaldi honetan, Alegiako ereserkiak ere entzun ahal izango dira.

«**Parte hartze handia**»

Alegiako udaleko ordezkariak eta udalerriri ezberdinetako musika eskoletako ordezkariak atzo egindako prentsaurrekoan adierazi zuten, 600 ikasle inguruk parte hartuko dute Xexili eguneko ekitaldietan. Bazkaria kultur etxean egingo dute, eta bertan 200 pertsona inguru elkartzeko dira.

Antolatzaileek «parte hartze handia» izatea espero dute; iaz Anoetan egin zuten festan ere parte hartze handia izan baitzen tailerretan, kalejiratan... Gainera, «eguraldia lagun» izango dutenez, jende gehiago animatuko duela uste dute. Alegiako udal ordezkariak ere beraien «babasa» eskaini zieten Loatzo musika eskolako jaiari. Eta, eskualdeko jendea gonbidatu zuten «larunbatean, Alegian izango den festa handi horretan parte hartzeraz». Festarako behar den guztia prestatzen ari dira egun hauetan.

↓ Egitaraua

AZAROAK 19, LARUNBATA

- 09:30. Kalejirak herrian zehar.
- 10:15. Piano gunea, plazan.
- 11:00. Dantza gunea, plazan.
- 11:30. Aurkezpena.
- 11:30. Tailerretako haurren emanaldia.
- 12:00. Soka gunea, Kale behean.
- 13:00. Haizezko eta abesbatzen saioa, plazan.
- 14:30. Bazkaria. Ondoren, katu gunea.

Izena eman behar da Olentzeroren etorrerarako

Olentzeroren etorreran parte hartu nahi dutenek hilaren 25a baino lehen izena eman behar dute, udaletxean

M.U. Ikaztegieta

Ikaztegieta Guraso Elkarteak eta Kultura batzordea, elkarlanean, Olentzeroren etorrera antolatu zuten hasi dira. Izan ere, urtero bezala, ikazkina herrira jaitsi eta bertako haurrekin elkartuko da.

Festa horretan parte hartu nahi dutenek eta beren haurrek Olentzeroren opari bat jasotzea nahi dutenek, hilaren 25a baino lehen haurraren izena eman beharko dute udaletxean; horretarako 5 euroko kuota bat ordaindu beharko dutelarik. Falta den zatia udalak jarriko du eta diru ho-



Olentzero eta Mari Domingi. HITZA

rrekin haurrei opari bana ekarriko die.

Udalak herrian bizi ez diren baina, festa horretan parte hartu nahi dutenei ere egin diete deia.

Herritarrek ez diren haurrak egun horretan plazan egon nahi badute eta parte hartu nahi izanez gero ere izena eman beharko dute, eta 10 euro jarri beharko dituzte gurasoek.

Esan bezala, epea hilaren 25ean, ostiralean, amaituko da. Epe honetatik kanpo ezin izango da izena eman.



Egin HITZAren harpidedun

abenduaren 31 baino lehen, eta jaso

MAHALA ekoizlearen

produktu sorta hau

OPARI

Bertako informazioari, bertako produktuak



hitza info

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info

Amaia Ruiz ◉ Aktorea

Bere aurpegia pixkana gero eta ezagunagoa egiten ari da. Aurtengo denboraldian 'Goenkale' telesailan parte hartzen hasi da Amaia Ruiz aktore tolosarra.

«Errealitatea bihurtzen ari da beti nahi izan dudana»

Imanol Garcia

Denbora gutxian Amaia Ruizen (Tolosa, 1986) bizitzak aldaketa handia izan du. Interpretazioa ikasten hasi eta hortik gutxira *Goenkale* telesailan parte hartzen hasi da. Malen da bere pertsonaia.

Nola sartuzinen aktore izateko bidean?

Beti gustatu izan zait, baina ez zeogen ezer guztiz bultzatzen zidana antzerkian hasteko. Administrazio bezala nengoen enpresa batean lanean, eta nire nagusiak esan zidan ea zergatik ez nintzen antzerkia egiten hasten. Niretzako bultzada bat izan zen. Orduan izena emanda nengoen Donostia-ko publikitate agentzia batean, eta hor bertan erakusten zuten antzeztzen. Eta hasiera pentsatu nuen, baina *hobby* bezala. Ez nekien nora nihoan, ezta zer sentituko nuen.

Ikusten denez, bide horretatik jarraituzenuen.

Oso kuriozosa izan zen: hainbeste gustatu zitzaidan, administrazio lana uztea eta Madrileren interpretazioa ikastera joatea erabaki nuela. Bi urte Donostian ikasi ondoren, Madrilen urtebete egin dut. Madrilen hiru urteko ikasketak hasi nituen. Proba bat egin nuen eta bigarrenko urtean sartu nintzen. Eta ikasketak bukatu gabe, maiatzean deitu zidaten Pausoka produktoratik, pertsonaiaren perfilean sartzen nintzela eta casting-a egiteko. Ekainean abisatu zidaten aukeratua izan nintzela. Eta ni, oso pozik, Tolosara itzuli nintzen, lanean hasteko.

Zure lehenengo papera *Goenkale*-koa izan da, beraz.

Madrilen film labor batzuk egin nituen, eta Internetarako sail batean ere parte hartu nuen. Esperezentzia polita izan zen, emaitza asko ez gustatu arren. Aktoreei ez ziguten gehiegi zuzentzen. Antzerkiaren aldetik, Donostian

egon nintzen bi urteetan, antzerki talde amateurrentzako lehiaketa bi aldiz irabazi genuen. Madrilen ere beste obra batean aritu nintzen. Garrantzitsuen, dudik gabe, *Goenkale* parte hartzea.

Ez da ohikoena *Goenkale* izateko lehenengo pausoa, ezta?

Egia esan, oso zorte handikoa sentitzen naiz. Nire asmoa Madrilen falta zitzaidan beste urtea amaitzea zen, eta bat batean, casting-a egin ondoren, niri deitza... Errealitatea bihurtzen ari da beti nahi izan dudana. Eta zer polita den benetan gustatzen zaizun horretan lan egitea. Goizean jaikitzen naiz lanerako, eta esaten dut: 'Zein ondo'. Niretzako egunero erronka bat da. Asko betetzen nau lan honek pertsona bezala.

Telesailen aktore gazteak zaudete, baina baita eskarmentu handikoak ere.

18. denboraldia da hau. Ez dut uste hasiera hasierako norbait dagoenik bertan, baina, esaterako, Ainhoa Aierbe uste dut laugarren denboraldian hasi zela, eta beraz, hamalau urte daramatza sailean. Berarekin hitz egiten duzu, eta esaten dizu nola ia egun berdinean ikasten dituen testuak. Ni hiru egun lehenago hasten naiz. Ikusten duzu berak erraztasuna duela bai ikasteko eta bai inprobisatzeko ere. Ni harrituta geratzen naiz. Sailean nire aita denak, Ramon Agirrek, izugarrizko eskarmentua du. Berarekin lana egitea luxu bat da. Pila bat ikasten dut bere ondoan. Berak duen segurtasuna zuri ematen dizu, eta horrek beste patxada batekin joateko bidea ematen dizu.

Nola deskribatuko zenuke zure pertsonaia?

Nire pertsonaia oso aberaskumea da, baina ez da ohiko aberaskume txolina, ezta gutxiago ere. Bihotz handikoa da, eskuzabala, bizitza oso positiboki begiratzen

duena, energia altuko pertsona, oso sentibera... Jendeak pertsonaia begintan hartu du, hain atsegina izanik, zerbait ezkatzen duela pentsatzen baitu.

Zaila da interpretatzea?

Hasiera batean asko kostatu zitzaidan zer puntutaraino izan behar zuen aberaskumea. Nik ez nuen nahi klixe bat egin. Naturaltasun batetik abiatu nahi nuen. Hasiera batean nahi zuten pertsonaia aberaskumea zela garbi nabaritzea. Gero pixka bat jaisten joan gara aberaskumearen ukitu hori.

Nolakoa izaten da grabaketa egun bat?

Niri, gehienetan, lehenengo ia zate tokatzen zait. Zazpiak laurden gutxiagotan sartu eta hiruak laurden gutxiagotan ateratzen gara. Orduetgia ez da batere txarra, baina goiz esnatu beharra dago. Kontzentrazioa landu behar duzu. Sekuentzia batetik bestera asko aldatzen da egin behar duzuna, eta zentratuta egoten saiatu behar zara.

Egunero izaten duzu grabaketa?

Tramaren arabera izaten da. Ni astean bi egunetan joan ohi naiz. Aste honetan astelehenean eta ostiralean tokatzen zait, hurrengoan asteartean eta asteazkenean.

«Pertsonaia ez nuen klixe bat izatea nahi; naturaltasun batetik abiatu nahi nuen»

«Ramon Agirrekin lana egitea luxu bat da; pila bat ikasten dut bere ondoan»

an. Beraz, bizitza pixka bat ez egonkorra da, alde horretatik.

Kanpoko grabaketak Tolosan egiten dituzue. Horrek zer suposatzen du zuretzako?

Jendeak esaten dit: 'Zer ondo, Tolosan grabatzen duzuela'. Ba ez zait batere gustatzen. Kontzentrazio gutxiago daukazu, jendea pasatzen delako, edo eurria hasten delako... Miramonen, aldiz, kontzentratuta egotea errazagoa da.

Asko maite dut Tolosa, baina nahiago ditut Miramoneko grabaketak.

Askotan esan ohi da aktore bizitza oso polita dela. Zer esango zenuke zuek?

Benetan gustatu behar zaizu lan hau, bestela ezin duzu egin. Nik uste dut barrutik datorren gauza bat dela hori. Argi dago ez dela dena hain polita. Ni gustura nago benetan hau egitea gustatzen zaidalako.

***Goenkale* ateratzeak ezaguna izatea dakar. Nabaritu duzu hori?**

Hasieran nire ezagunek esaten zidaten zerbait. Orain aitona-amonak, haurrek, edo, kiroldegian ere esaten didate: 'Zu *Goenkale* ateratzen zara'. Aurrekoan kuriozosa izan zen. Kaletik nindoan lagun batekin, eta neska batzuk gerturatu ziren eta nirekin argazki bat ateratzeko eskatu zidaten. Eta, nik, 'ze ba?' galdetu nien. Eta berarekin erantzun: 'Baina ez zara *Goenkale* ateratzen zarena?'. Eta orduan konturatu nintzen. Oraindik ez daukat barneratuta jendeak ezagutu nazakeela.



I. GARCIA

Espainiako armadaren presentzia «izugarria» salatu du Leitzako Udalak

Herritar batek jakinarazi zion udalari 50 soldadu inguru zebiltzala, iragan astean, Leitzalarren

Iñigo Terradillos Leitza

Leitzako Udalak Espainiako armadaren presentzia eta maniobra salatu ditu. Hain zuzen ere, iragan astean burutu ziren maniobra hauek Leitzalarren, «aurrez udalari jakinarazpenik egin gabe, eta inolako baimenik eskatu gabe».

Leitzalarren, Ixkibarko parkean, gertatu zen. Herritarrek paseatzeko edota arratsalde edo egun pasa egiteko ohiko lekua da, aulkiak eta parrilak baitaude bertan. Bada, udaletik azaldutakoaren arabera, bertara paseatzera joandako herritar batzuek izan zuten militarren presentziaren berri. «Han ikusitakoak sortutako harritura eta ezustekoarekin, Leitzako udaletxera deitu zuten guztiaren berri emateko», azaltzen du Oier Eizmendi Leitzako alkateak. Horren berri izan bezain pronto gerturatu zen Leitzalarre-alkatea udaleko beste ordezkariekin: «Gertatzen ari zenaren berri izateko helburuz joan ginen hara, eta bide batez argazki batzuk ere egin genituen».

50 soldadu inguru

Eizmendik jakitera eman duenez, «Espainiako armadaren presentzia militarra izugarria izan da: dozenaka militar ongi armatuta oinez, anbulantzia, kamioiak eta beste ibilgailuak..., herritarren artean arriskua eraginez».

Maniobra hauen iraupenez ez du daturik Leitzako alkateak: «Herritar hauek pasa den asteko asteazkenean ikusi zituzten militarrek, eta gu egun horretan bertan joan ginen, beraz, ez dakigu egun gehiagotan ere aritu ote zi-



50 soldadu inguru elkartu ziren Leitzalarreko Ixkibarko zonaldean. HITZA



Soldaduak kamioietatik irteten, pasa den astean. HITZA

ren, baina uste dugu egun bakarreko kontua izan zela».

Eizmendiren arabera, udalak horrelakoen berri izan beharko luke; «kasualitatez eta hainbat herritarrek egindako deien eta salaketen esker izan du udalak ger-

taeraren berri, guretzat sorpresa izan da; nire ustez, militarrek, armekin, gisa horretako mugimenduak egin behar badituzte, udal txeari jakinarazi beharko lioke».

Bestalde, informazio ezaz gain,

militarren presentzia bera ere salatu du udalak, eta «Leitzatik eta Euskal Herritik joateko» exijitzen dio Espainiako armadari. «Hemen ez dute tokirik euren gerra-jolasek. Gainera, egun Euskal Herrian bizi dugun egoera politiko itxaropentsuan ez dago inondik inora justifikatuta euren presentzia militarra».

Adierazi dutenaren arabera, udaleko ordezkariak bildu egingo dira gertaeraren aurrean hartu beharreko neurri edota erantzuna erabakitzeko.

Irailean, «armak probatzen»

Leitzatik gertu, Lekunberrin, eta duela bi hilabete, Plazaolako naturbidean, plastikozko botila batzuei tiro egiten aritu zen Goardia Zibila. Hartan ere, paseatzen ari zen herritar batek izan zuen ezustekoa. Goardia Zibilak esandakoren arabera, «munizio eta arma berriak probatzen» aritu ziren poliziak.

Leitzako hiru idazleren lanen irakurketa saioa egingo dute gaur, liburutegian

Alke elkarteak antolatutako literatur saioa 19:00etan hasiko da, eta herritar oro dago gonbidatuta

I. Terradillos Leitza

Alke Leitzako kultur taldeak Leitzako Udalaren euskara zerbitzuaren eta udal liburutegiaren laguntzarekin antolatuta, VI. Literatur Saioa egingo dute gaur, liburutegian. Hain zuzen ere, Leitzako idazleen liburuen irakurketa publikoa izango da, 19:00etatik aurrera.

Alke elkartetik azaltzen dutenez, «irakurzaletasuna sustatzeaz gain, leitzar idazleen lana jakitera ematea da ekimenaren helburua». Horretarako, batetik, Leitzan jaito edo Leitzan bizi diren idazleen lanen erakusketa jarriko dute, herritarrek ikus ditzaten. Bestetik, leitzarren lan horietako batzuetatik hartutako pasarteak irakurriko dituzte.

Hiru herritarren lanak

Herriko hiru pertsonai ezagun izango dira irakurketaren ardura izango dutenak. Alke elkarteek herritar guztiak gonbidatu dituzte testuak entzuterako. Era berean, irakurketa egin ostean, irakurritako lanen inguruan solasaldia egingo dute.

Antolatzaileek hiru lan aukeratu dituzte gaurko saiorako. Mikel Illarregiren *Argazkiei begira* poesia liburua, Mikel Olanoren *Aio Leitze!* lana eta Iñaki Zabaleteren *110. Street-eko geltokia* eleberria. Hiru horietatik aukeraturako pasarteak entzuteko aukera izango da, hain zuzen.

Aukera polita, beraz, herriko idazleen lanak, ezagutzeko, era berezi batean, gainera.

● leitzaldea@hitza.info

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketak, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Gaurko programazioa

28 KANALA

- 08:30. Ur eta lur. ■ 09:00. Forforur.
- 09:30. Tolosaldean Gaur.
- 10:00. Behobia. ■ 10:30. Esatea Libre.
- 11:00. Esatea Libre. ■ 11:30. Tolosaldean Gaur.
- 12:00. Ikusmira. ■ 12:30. BIT.
- 13:00. Amaigabeko istorioa.
- 13:30. Tolosaldean Gaur.
- 14:00. Behobia. ■ 14:30. Esatea Libre.
- 15:00. Esatea Libre. ■ 15:30. Tolosaldean Gaur.
- 16:00. Ikusmira. ■ 16:30. BIT.
- 17:00. Amaigabeko istorioa.
- 17:30. Tolosaldean Gaur.
- 18:00. Walker. ■ 18:30. Base-rritar eguna. ■ 19:00. Euskadiko Aizkora Txapelketa. ■ 19:30. Tolosaldean Gaur. ■ 20:00. Estetika.

TXOLARRE IRRATIA

(107,6 edo www.txolarre.org)

- 11:00. Tolosaldeko Ahotza albistegia. ■ 12:00. Tolosaldeko Ahotza magazina: Ongi Etorri sarien banaketa ekitaldiaz, Zortziko Aldrebesa bertsolaritzari eskainitako tartea. ■ 13:00. Lehiaketa eta disko eskainiak.
- 13:30. Info 7ko albistegia.
- 14:00. Tolosaldeko Ahotza albistegia. ■ 16:00. Gonekin Ero Bero (Antxeta irrati). ■ 17:00. Kabitik plazara. ■ 18:00. Tolosaldeko Ahotza magazina.
- 19:00. Tolosaldeko Ahotza albistegia. ■ 20:00. Info 7ko albistegia. ■ 21:00. Adi (Irulegi).

Agurrak



Zorionak!

Andres Gaztañaga (Tolosa). Gaur 94 urte. Ondo pasa familiaren partetik.

Irudia Belauntza



JUBILATU EGUN BOROBILA OSPATU DUTE

Igandean jubilatuek euren eguna ospatu zuten Belauntzan. Egunari hasiera emateko meza izan zen San Joan elizan. Ondoren, Toka Txapelketa izan zuten, eta lehiaketako sariak banatu eta gero, herriko jubilatuek eta pentsiodunek bazkaria

izan zuten. Bazkaria Mendizabal eta Peñagarikano bertsolariek eta Evaristo soinu-joleak girotu zuten. «Urtero egin izan den bezala, udalak sariak eta oroigarriak banatu zituen, eta oso giro ona izan zen», argitu du Belauntzako Udalak. HITZA

Agenda

DEIALDIK

- **Aduna.** Kultur astearren barruan gaur, 17:30ean *Zomorroak* antzezlan ikusi ahal izango da, Zurrumurru taldearen eskutik, kultur aretoan.
- **Tolosa.** ADICAEk antolatuta aurrezkiari buruzko hitzaldia izango da gaur, 19:00etan bilduko dira kultur etxean. Banakako orientazioa nahiz aholku praktikoak eskuratu ahal izango dira.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroan, Topic-en, Cannes herriko Arketal talde-tailerrari eskainitako erakusketa ikusi daiteke otsailaren 12a arte. Bertan taldea frantsesaren 150 bat pizza ikusi daitezke.
- **Anoeta.** Kultur eta kirol astearren barruan hilaren 19a bitarte kiroldegiko sarreran, immigrazioari buruzko erakusketa ikusi daiteke. *Ni ere pertsona* 09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:30era bisitatu daiteke.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kale, 2. 943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



INKERENU
jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako mozorroak

Gernikako Arbola 1 behea • **TOLOSA** • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com